

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 3216

*AGINDUA, 2022ko ekainaren 22koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Apasos/Apasos Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko.*

2021eko abenduaren 27an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailan, Fundación Apasos/Apasos Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egin zen.

Fundazioaren patronatuak 2021eko azaroaren 26an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publikoan gauzatu zen Bilbon 2021eko abenduaren 9an Eduardo Ares de Parga Saldias notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 6241). Eskabidearekin batera, espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Halaber, erabaki horren bitartez, estatutuetan aldaketa hauek sartu ziren:

– Patronatuaren osaerari dagokionez: gutxienez hiru kidek eta, gehienez, zazpi osatuko dute patronatua.

– Patrono karguaren iraupena (fundatzailearen kasuan, biziartekoa, eta hautatutako kideen kasuan, bost urtekoa).

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatuak aldatzeko espediente hau agindu baten bidez ebatzea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzen eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko irizitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzen eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Apasos/Apasos Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea –Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko eta ebazpen honen azalpen-zatian aipatutako

aldaketak txertatzeko—, agindu honen datarekin, Eduardo Ares de Parga Saldias notarioaren aurrean 2021eko abenduaren 9an egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 6241).

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, ondorioz, honen aurka, auke-rako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioa-rekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 22a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.